



**KORTEZUBIKO UDALA  
BIZKAIA**

**2019KO APIRILAREN 9AN  
UDALBATZA OSOAK  
EGINDAKO  
OHIKO BILERAREN AGIRIA**

**ZINEGOTZI BERTARATUAK:**

Ibon Legarza Albizuri jauna  
Lourdes Mendiola Zarrabeitia andrea  
Julen Goikolea Zabalbeaskoa jauna  
Lander Ortiz Mintegia jauna  
Jon Karlos Larrinaga Lekerika jauna  
Iraide Azkarate Amunategi  
Idazkaria Ana Hormaetxe Ugalde andrea

2.019 apirilaren bederatzian arratsaldeko zazpiak eta erdietan, Udaltzaren buru dela Alkate jauna, Udaltza Osoa batu zen lehenengo deialdian ohiko bilera ospatzeko. Hori horrelaxe dela egiaztatu du Ana Hormaetxe Ugalde Udaltzaren Idazkariak.

Jarraian Alkate jaunaren aginduz bilera hasi da, kontuan harturik zer gai zerrenda banatu zen lehenago zinegotzien artean, eta honako erabaki hauek hartu ziren:

**LEHENENGOA:  
AURREKO BILKURA  
AGIRIAREN ONARPENA.**

Udaltza Osoak 2018ko azaroaren 20ko eta abenduaren 27ko bilkuren agiria irakurri ondoren, aho batez onartzen dute.

**BIGARRENA:  
ALKATETZA DEKRETUAK**

Emandako Alkatetza Dekretuen berri ematen da.

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA  
CELEBRADA POR EL  
AYUNTAMIENTO EN PLENO  
EL DÍA 9 DE ABRIL DE 2019**

**CONCEJALES ASISTENTES:**

Don Ibon Legarza Albizuri  
Doña Lourdes Mendiola Zarrabeitia  
Don Julen Goikolea Zabalbeaskoa  
Don Lander Ortiz Mintegia  
Don Jon Karlos Larrinaga Lekerika  
Doña Iraide Azkarate Amunategi  
Secretario Doña Ana Hormaetxe Ugalde

En la Casa Consistorial de Kortezubi siendo las diecinueve treinta horas del día nueve de abril de dos mil diecinueve bajo la Presidencia del Sr. Alcalde se constituyó el Ayuntamiento en Pleno al objeto de celebrar la sesión ordinaria en primera convocatoria. Da fé del acto la Secretario de la Corporación Doña Ana Hormaetxe Ugalde.

A continuación, de orden del Sr. Alcalde dio comienzo la sesión conforme al orden del día que previamente ha sido distribuido entre los concejales, adoptándose los siguientes acuerdos:

**PRIMERO:  
APROBACIÓN DEL ACTA  
DE LA SESIÓN ANTERIOR.**

Leída por el Pleno el acta de las sesiones anteriores de fecha 20 de noviembre y 27 de diciembre de 2018, éstas fueron aprobadas por unanimidad.

**SEGUNDO: DECRETOS DE  
ALCALDÍA.**

Se da cuenta de los Decretos de Alcaldía emitidos

[udala.kortezubi@bizkaia.org](mailto:udala.kortezubi@bizkaia.org)



## **KORTEZUBIKO UDALA BIZKAIA**

### **HIRUGARRENA: KONTRATAZIO MAHAIKIDEEN IZENDAPENAREN ONARPENA, HALA BADAGOKIO.**

Lehenengo eta behin, Alkateak aurkeztutako proposamena irakurtzen da, hau da:

Sektore Publikoko Kontratueta 9/2017 Legearako Bigarren Antolamendu Gehigarriko 7 atala ikusita, eta, kontutan hartuta erata dagoen Kontratazio Mahaia ez datorrela bat lege honekin,

#### **PROPOSATZEN DUT:**

**LEHENENGOA:** Gaur egun dagoen Kontratazio Mahaia bertan behera itxi.

**BIGARRENA:** Sektore Publikoko Kontratueta 9/2017 Legea kontutan hartu, Korteziubiko Kontratazio Mahaia berria eratu, hurrengo kideak kontutan hartuta:

- **Presidentea:** Alkatea, edo, esku uzten duen pertsona.
- **Bokala:**  
Korteziubiko Idazkari-Kontuhartzailea, edo bere ordezkoa, Gauegiz-Arteagako Idazkari-Kontuhartzailea.
- **Bokala:**  
Korteziubiko Udaleko administrari-laguntzailea, edo bere ordezkoa, Gauegiz-Arteagako administrari-laguntzailea.

Mahaiko kideek hitza eta botoa izango dituzte.

### **TERCERO: APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA COMPOSICIÓN DE MIEMBROS DE LA MESA DE CONTRATACIÓN**

En principio, se da lectura a la propuesta de Alcaldía, esto es:

Visto que la Mesa de Contratación constituida hasta la fecha no se adecúa al apartado 7 de la Disposición Adicional Segunda de la Ley 9/2017, de Contratos del Sector Público:

#### **SE PROPONE:**

**PRIMERO:** Anular la Mesa de Contratación actualmente constituida.

**SEGUNDO:** Constituir la Mesa de Contratación del Ayuntamiento de Korteziubi con los siguientes miembros en cumplimiento con lo dispuesto en la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público:

- **Presidente:** El Alcalde/Alcaldesa o persona en quien delegue.
- **Vocal:**  
El/ La Secretario/a Interventor/a del Ayuntamiento de Korteziubi, o su suplente, el/ la Secretario/a Interventor/a del Ayuntamiento de Gauegiz-Arteaga.
- **Vocal:**  
El/La auxiliar-administrativo del Ayuntamiento de Korteziubi

[udala.korteziubi@bizkaia.org](mailto:udala.korteziubi@bizkaia.org)



## **KORTEZUBIKO UDALA BIZKAIA**

Gaia ikusita, kasu bakoitzean, beharrezkoak diren aholkulariei deitu ahal izango diete. Haiek hitza izango dute, botorik ez.

Kortezubiko Udaleko zinegotziek bileretara entzule gisa joateko eskubidea izango dute.

Azkenez, proposamena bozkatu egiten da, eta emaitza hurrengo da: EAJ-PNVeko zinegotzien baiezko(3 boto) eta EH Bildukoen ezezkoa(3boto). Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 100. Artikulua kontutan hartuta, proposamena onartu egiten da.

EH Bildukoen proposamena kontratazio mahaia sei pertsonaz beteta egon daitela da. Horrela haiek parte hartzen dute, hitza eta botoa izango dutelarik.

**LAUGARRENA:  
KORTEZUBIKO UDALA  
ETA MARIA PIEDAD  
BENGOCHEA MUNIOZGUREN  
ANDRAREN ARTEAN BI  
PARTZELAREN ERABILERA-  
LAGAPENERAKO  
KOLABORAZIO  
HITZARMENAREN ONESPENA,  
HALA BADAGOKIO.**

Lehenengo eta behin, Alkateak hurrengo puntuak argitzen ditu:

1. Hitzarmen hau familiak eskuetan dauka, eta, sinatzeko guztiz ados dago.
2. Hitzarmen sinatzeak Udala ez du lotzen.
3. Momentu honetan analitika lanak eginda dagoz, eta,

[udala.kortezubi@bizkaia.org](mailto:udala.kortezubi@bizkaia.org)

, o, su suplente, el/la auxiliar-administrativo del Ayuntamiento de Gautegiz-Arteaga.

Todos/as los/as miembros de la mesa de contratación tendrán voz y voto.

No obstante, en cada caso, se podrá llamar a los/as asesores que sean necesarios/as según los asuntos a tratar, los/as cuales tendrán voz, pero no voto.

Se reconoce a los/as concejales/as del Ayuntamiento de Kortezubi el derecho a acudir a las reuniones de la mesa de contratación en calidad de oyentes.

Finalmente, se pasa a votar la propuesta, siendo el resultado el siguiente: el voto favorable de los/as concejales de EAJ-PNV (3 votos) y en contra de los/as de EH Bildu (3 votos). La propuesta se aprueba teniendo en cuenta el artículo 100 del Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre.

La propuesta de EH Bildu consiste en que la mesa esté compuesta por 6 personas. De esta forma ellos/as pasan a formar parte de la mesa con derecho a voz y voto.

**QUINTO:  
APROBACIÓN, SI  
PROCEDE, DEL CONVENIO DE  
CESIÓN DE USO DE 2 PARCELAS  
ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE  
KORTEZUBI Y DOÑA MARIA  
PIEDAD BENGOCHEA  
MUNIOZGUREN.**

En primer lugar, el Alcalde hace las siguientes aclaraciones:



## **KORTEZUBIKO UDALA BIZKAIA**

hitzarmena bukatu ondoren, berria egin beharko da, lurak zelan dauden jakiteko.

4. Udaletxeak lanak egiteko konpromisua hartuta dauzka, baina, momentu honetan Omako Basoan dauden arazoak kontutan hartuta, dena geldirik geratzen da. Aldundiarekin harremanak arinak dira, eta, informazio eguneratuta dauzkagu.

Lander Ortizek zera galdetzen du: pinuak fumigatu egingo direla entzun dugu. Alkatearen erantzuna: oraingoz esamesak dira.

Hurrengo galdera: Zerbait egiterakoan udal lizentzia eskatu beharko dute? Pinuetan tratamendua emateko, behintzat. Alkatearen erantzuna: oraingoz ez dago argi zer egingo den.

Azkenean, Udalbatza Osoak aho batez onartzen du:

a.-Kortezubiko Udala eta Maria Piedad Bengoechea Muniozguren andrearen artean bi partzelaren erabilera-lagapenerako kolaborazio hitzarmena

b.-Ibon Legarza Albizuri jaunak Kortezubiko Udala eta Maria Piedad Bengoechea Muniozguren artean emango den hitzarmena sinatzearen baimena.

Momentu honetan Eneritz Ozamiz Monasterio andrea bertaratu egiten da.

1. La familia tiene este convenio, y, está totalmente de acuerdo para firmarlo.
2. El firmar el convenio no ata al Ayuntamiento para nada.
3. Es este momento están haciendo unos trabajos de analítica del terreno, y, en el momento en que venza el convenio, habrá que volver a repetirlo, para comprobar el estado de los terrenos.
4. El Ayuntamiento tiene un compromiso para realizar las obras, pero, en este momento, y, viendo el problema que existe en el Bosque Pintado de Oma, todo está en paralizado. Las relaciones con la Diputación son fluidas, y, estamos al tanto de las decisiones que se están tomando.

Lander Ortiz pregunta: Hemos oído que los pinos se van a fumigar. El Alcalde contesta que por ahora son habladurías.

Se pregunta: si se hiciera algo, ¿no sería necesaria la licencia municipal? Por lo menos para dar algún tratamiento a los pinos. El Alcalde responde que todavía no hay nada claro sobre lo que se va a hacer.

Finalmente, el Ayuntamiento Pleno aprueba por unanimidad:

[udala.kortezubi@bizkaia.org](mailto:udala.kortezubi@bizkaia.org)



**KORTEZUBIKO UDALA  
BIZKAIA**

**BOSTGARRENA: EH  
BILDUK "BUSTURIALDEA  
HARRERA  
ESKUALDEA" AURKEZTUTAKO  
MOZIOARE ONESPENA, HALA  
BADAGOKIO.**

**"BUSTURIALDEA HARRERA  
ESKUALDEA**

Milaka dira egunero, sorterrria atzean utzita, lurra eta itsasoa zeharkatzen dutenak bizi hobe baten bila. Dakigun bezala, orain ez horrenbeste urte, ehunka izan ziren gerrari eta miseriari ihes egin zioten Busturialdeko herritarrak. Badakigu, halaber, poemak dioena: «nekez uzten du bere sorterrria sustraiak han dituenak». Inor ez da bere ingurutik eta ingurukoengandik plazerrez aldentzen, ondo eta duin bizi den artean. Gerra, gosea, esplotazioa, lehengaien agorpena, etrokizun eza... Neokolonialismoaren ondorio gordinek ekartzen dituzte Euskal Herrira etorkin horiek guziak. Erakunde zibilen boluntarismoari eta herritarren auzolanari esker, hainbatek aterpea eta oinarritzko beharrak asetzeko aukera izan dute. Baina beste asko eta asko oraindik kale gorrian daude, aterperik, lanik eta paperik gabe.

Bidegabekeria ikaragarri honen aurrean ez ikusiarena egin ezinik, urriaren 13an Busturialdea harrera eskualde bihurtzeko lehen pausua eman genuen. Bilbon kalean geratu behar ziren hainbat etorkini Gernikan harrera duina egitea lortu zen. Emerjentzia egoera haren aurrean, egun batetik bestera, herritarrek emandako erantzuna gogoangarria da: erlojuaren kontra aterpea eta oinarritzko beharrianak asetzeko baliabideak eskaintzea lortu zen. Hala ere, ezin dugu ahaztu hau hasiera

[udala.kortezubi@bizkaia.org](mailto:udala.kortezubi@bizkaia.org)

a.- Aprobare el convenio de cesión de uso de 2 parcelas entre el Ayuntamiento de Kortezubi y Doña Maria Piedad Bengoechea Muniozguna.

b.- Autorizar a Don Ibon Legarza Albizuri para firmar el convenio entre el Ayuntamiento de Kortezubi y Doña Maria Piedad Bengoechea Muniozguna.

En este momento se une a la sesión Doña Eneritz Ozamiz Monasterio.

**CUARTO: APROBACIÓN  
DE LA MOCIÓN, SI PROCEDE,  
"BUSTURIALDEA HARRERA  
ESKUALDEA" PRESENTADA  
POR EH BILDU.**



## **KORTEZUBIKO UDALA BIZKAIA**

baino ez dela, oraindik Bilbon jende mordoa baitago kalean eta etengabe heltzen baitira etorkin gehiago Euskal Herrira.

Hau guztia kontuan hartuta, Busturialdeko Harrera Mugimenduak (BHM) ezinbestekotzat jotzen du instituzioek gai honekiko daukaten erantzunkizuna bere gain hartzea eta eskura dituzten baliabideak eskaintzea. Arrazismoa baztertu, interkulturalitatea sustatu eta giza eskubideak errespetatzeko neurriak hartzeko eskatzen diegu erakunde publikoei.

Zehazki, Busturialdera datozen etorkinek harrera integrala jaso dezaten, zuekin negoziazorako eta elkarlanerako bidea zabaldu nahi du BHMak, ondoren datozen puntuak elkarrekin eztabaidatu eta adostasunetara heltzeko abiapuntuak mahai gainean jarritz:

**1.-HARRERA PROTOKOLO INTEGRALA** sortzea. Etorkinak eskualdera edo herrira heltzen diren momentuan harrera duina egin eta protokoloa martxan jartzea. Aipatutako protokoloa herri bakoitzak berea izango du, baina guztietan lehenatasunak logika baten arabera ordenatuta joango dira.

- Arlo administratiboan eskualdera heltzen diren pertsona migratzaileei eskaintzen zaien babesa, Gizarte Zerbitzuei buruzko, 12/1008 Legearen bitartez eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko Dekretuaren bidez eskainiko dela ziurtatzea: Informazio, balioespen, diagnostiko eta orientabide-zerbitzua:

[udala.kortezubi@bizkaia.org](mailto:udala.kortezubi@bizkaia.org)



## **KORTEZUBIKO UDALA BIZKAIA**

- Erroldaren gestioa martxan jartzea
- Osasun zerbitzuak eskuragarri izatea
- “Administrazio-egoitza ziurtatzen duen agiria” edo “herritar agiria” lortzea
- Oinarrizko beharrianak asetzea
- Formakuntzarako aukerak eskaintzea
  - Arlo sozialean:
- Sare sozio-afektiboa martxan jartzea
- Busturialdeko Harrera mugimenduarekin harremanetan jartzea.

2.-Busturialdeko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateari gure Eskualdera datozen etorkinei zuzendutako **Baliabideen gida** eguneratzeko eta sustatzeko eskatzea. Hizkuntza desberdinetan egongo dela bermatu.

3.-Arartekoren gomendioei men eginez, bizitzeko lekua duten pertsona horien **erroldatzeko** eskubide historikoa bermatzea, kasu hauetan errolda prozesua lehen egunetik martxan jarriz.

Era berean, bizitzeko lekurik ez dutenei ere eskubide hau bermatzea “errolda sozialaren” bitartez. Honela, inklusioa lortzeko lehen pausuak ematen dira eta oinarrizko zerbitzuak guztion eskura jartzeko bidea zabaltzen da.

Ezinbestekoa da, bazterketa egoerak ekiditeko, kondizio, betekizun eta hauen tramiterako beharrezko dokumentazioari buruzko informazioa, hizkuntza desberdinetan eskaintzea. Argi utziz, ezinbestekoa dela dokumentazioa eguneratuta izatea eta egoera erregularizatua ez dutenei dokumentazioa

[udala.kortezubi@bizkaia.org](mailto:udala.kortezubi@bizkaia.org)



## **KORTEZUBIKO UDALA BIZKAIA**

eguneratuta ez izateak ekarri diezaiekeen ondorioak azpimarratuz. Adibidez, udalak, 2 urte igarotzean, errolda eguneratu beharko dutela jakinaraztea.

**4.-ZURRUMURRURIK EZ!** Sarearen parte izatea eta honen inguruko dinamikak martxan jartzea inguru desberdinetan eta adin guztietako jendearekin. Gaurdaino hauek dira sareko parte diren instituzioak: (Aduna, Alegia, Alkiza, Anoeta, Asteasu, Arrasate, Basauri, Bilbao, Donostia, Eibar, Errenteria, Getxo, Hernani, Ibarra, Larraul, Ordizia, Pasaia, Portugalete, Tolosa, Zarautz, Villabona eta Gasteiz Udalerrietako udalak eta hiru Foru Aldundiak, baita Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Familia Politika eta Aniztasuna, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU) eta Immigrazioaren Euskal Behatokia.

Puntu honekin, sarean egoteaz gain, gai honekiko hartzen diren konpromiso politiko eta ekonomikoak bermatzea eskatzen dugu. Plangintzak osatzea, dinamika desberdinak martxan jartzea eta behar den laguntza ekonomikoa sare honetara bideratzea.

5.-Udalek egoera irregularrean dauden eta erroldatzeko zailtasunak dituen etorkinei, herri horretan finkatuta dagoela frogatzen duen "herritar agiria" sortzea eta beraien esku jartzea. Hala, herrian bertan bizi baina egoera irregularrean aurkitzen diren etorkinen harrera erraztuko litzateke hasiera-hasieratik, eta bazterketa arriskua ekidingo da. Hauek pasaporteak lortu bitartean "herritarren agiria" erabiliko dute herrira heltzen diren lehen egunetik bertan bizi direla frogatu ahal izateko, udal espazio eta baliabideak erabiltzeko eta beraien identifikazio bezala.

[udala.kortezubi@bizkaia.org](mailto:udala.kortezubi@bizkaia.org)





## **KORTEZUBIKO UDALA BIZKAIA**

6.-Larrialdi egoeran dagoen pertsona orori, kasu honetan etorkinei, nahiz eta beraien egoera irregularra izan, udal etxebizitzak beraien esku jartzea. Inor kalean gera ez dadin.

7.- Lanbiderekin akordioak sinatzea. Herritarrentzako eta kasu honetan etorkinentzako, lanerako sarbideak errazteko. Eskualdean bertan formakuntza saioak antolatzea, irtenbide profesionalak eskainiz. Barrutialde institutuarekin hitzarmenak sinatzea, lanbide heziketako ikasketak bultzatuz.

8.-Gai honen inguruan lanean jarduten mugimendu eta elkarteekin batera, errefuxiatu eta etorkinei euskarri afektiboa emateko gai den herritarren sarea sustatzea. Eta inklusioaren alde, herriko egunerokotasunean parte hartzera animatzea. Gernika-Lumo "abegi onaren herria" bihurtu.

[Busturialdeaharreraeskualdea@gmail.com](mailto:Busturialdeaharreraeskualdea@gmail.com) "

EAJ-PNV bere mozioa aurkezten du:

**"KORTEZUBIKO UDALEKO 'ABEGI ONA KORTEZUBIKO IDENTITATE' ADIERAZPEN INSTITUZIONALA,**

ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK BUSTURIALDEAK eginiko eskaerari erantzuten diona, hots, barneratze, interkulturalitate eta arrazismo ezadun herria ahalbidetzen duten giza eskubide eta arrazoibide etiko eta juridikoak errespetatzearen gainekoa.

2018ko abenduan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 70. urteurrena izango da. Inklusioaren nahiz kultura-artekotasunaren alde egiten duen eta arrazakeriaren aurka dagoen hiri-eredua oinarritzat dituen oinarri etiko eta juridikoa

## **HOSPITALIDAD; SEÑA DE IDENTIDAD DE KORTEZUBI**

Los Grupos políticos que integran el Ayuntamiento de Kortezubi hacemos nuestra la petición formulada por ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK BUSTURIALDEA por lo cual realizamos la siguiente

En diciembre de 2018 se cumple el 70º aniversario de la Declaración Universal de los Derechos Humanos, el fundamento ético y jurídico que inspira un modelo de ciudad inclusivo, intercultural y antirracista por el que trabajamos entidades sociales y

[udala.kortezubi@bizkaia.org](mailto:udala.kortezubi@bizkaia.org)



## KORTEZUBIKO UDALA BIZKAIA

da, eta horren alde egiten dugu lan Korteziubi Udalean eta gizarte-erakundeetan, herritarrekin batera.

Gaur egun, gero eta bereizkeria, aurreiritzi, arrazakeria eta xenofobia gehiago dago gure artean. Immigrazioari eta babes emateari buruzko eztabaida gogorak eta polarizatuak entzuten ditugu herrialde askotan; eta, era berean, herrialde jakin batzuetako kaleetan, indarkeria, gorroto eta bereizkeria kasuak nabarmen gehitu dira, arrazoi etnikoak direla medio.

Arrazakeriaren aurkako borroka lehenatasuneko gaia izan behar da gizarte guztietan eta borroka hori genero ikuspegiarekin, gizarteratzearekin, aniztasun funtzionalarekin, aniztasun erlijiosoarekin, sexu-orientazioarekin, belaunaldiekin... lotuta badago ere ezin daiteke horietara mugatu.

Etorkizunean eztabaidatzeko eta kultur arteko hiriak edukitzeko erronka zehatzak ditugu: nola garatu narratiba zehatzagoa eta argiagoa kultura-aniztasunaren kudeaketaren eta gizarteratzearen arteko loturan, eta nola bermatu berdintasuna "aniztasun" mota guztietan.

Kultura-aniztasuna modu positiboan sustatu beharra dago, baita elkarrekintzan aritzeko tokiak bultzatu ere. Badakigu aurreiritziek eta bereizkeriak aurrera egiteko bide aproposa dutela segregazioa badago edo pertsonen artean harremanik eta elkarriketarik ez badago.

Europako Kontseiluak, Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordearen bitartez, Espainiari eskatu zion, 2018ko otsailean, "ahalik eta arinen" sortzeko berdintasuna bultzatu eta arrazakeriaren eta intolerantziaren aurkako borroka sustatuko duen erakunde "indartsua eta burujabea".

Horiek helburuak betetzearren, arrazaren inguruko aurreiritziak eta

Ayuntamiento de Korteziubi junto a la ciudadanía.

Vivimos una época en que se registran niveles inaceptables de discriminación, prejuicios, racismo y xenofobia. Asistimos a duros y polarizados debates sobre la inmigración y el refugio en muchos países, y simultáneamente a nivel de la calle en una serie de países se ha producido un notable aumento del nivel de violencia, odio y discriminación motivados por motivos étnicos.

Acabar con el racismo debe ser una cuestión prioritaria para todas las sociedades y no puede entenderse aisladamente de las perspectivas de género, inclusión social, diversidad funcional, diversidad religiosa, orientación sexual, generacional...

El desafío para el futuro debate y la práctica de las ciudades interculturales es cómo desarrollar una explicación más clara sobre la diversidad cultural y la inclusión, así como garantizar la igualdad en toda la gama de "diversidades".

Es preciso promover un **enfoque positivo** en relación con la diversidad cultural y potenciar los espacios de interacción. No podemos desconocer que los prejuicios y la discriminación encuentran un perfecto caldo de cultivo cuando hay segregación o falta de contacto y diálogo entre las personas.

En febrero de 2018 el Consejo de Europa, a través de la Comisión Europea contra el Racismo y la Intolerancia, ha instado a España a crear "*con urgencia*" un organismo "*fuerte e independiente*" que promueva la igualdad y la lucha contra el racismo y la intolerancia.

El Ayuntamiento se propone jugar un papel activo en estos objetivos contribuyendo a romper los prejuicios raciales y las actitudes intolerantes y realizando una llamada a

[udala.korteziubi@bizkaia.org](mailto:udala.korteziubi@bizkaia.org)



## KORTEZUBIKO UDALA BIZKAIA

jasanezintasunean oinarritutako jokoarak alde batera uzteko funtsezko eragile nahi du izan Udalak, besteak beste, Giza Eskubideak aldarrikatuz.

Arestian adierazitakoa kontuan izanda, Kortezubiko Udalbatzak, ADOSTEN DU:

1.- Zurrumurrurik Ez sarearen parte izatea, Aduna, Alegia, Alkiza, Anoeta, Asteasu, Arrasate, Basauri, Bilbao, Donostia-San Sebastian, Eibar, Errenteria, Getxo, Hernani, Ibarra, Larraul, Ordizia, Pasaia, Portugalete, Tolosa, Zarautz, Villabona, Vitoria – Gasteiz udalerrietako Udalak eta Hiru Foru Aldundiak bezala.

2.- Busturialdeko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateari gure Eskualdera datozen emigrantei eta errefuxiatuei zuzendutako Baliabideen Gida eguneratzeko eta sustatzeko eskatzea.

3.- Arartekoren gomendioei men eginez, bizilekurik ez duten pertsona horien erroldatzeko eskubide historikoa bermatzea edota laguntza eskaintzea, beste administrazio edota gaian eskumena duten erakundeekin batera, Udalak hutsik dituen pisuak edota Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak bidezkotzat jotzen dituen lekuak erabiltzeko aukera emanaz.

4.- Busturialdeko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateari eskatzea aztertu dezala “administrazio-egoitza ziurtatzen duen agiria” gauzatzeko aukera eta, horretarako, lehenengoz datozen emigrantei babesa eskaintzea, bakartze eta baztertze soziala ekiditzearen. “Administrazio-egoitza ziurtatzen duen agiria” egoera irregularrean aurkitzen direnek eta, nahiz eta udalerrian bizi, erroldatzeko zailtasunak dutenek eskatu dezakete.

convertirnos en personas defensoras de los Derechos Humanos.

Teniendo en cuenta lo expuesto anteriormente, el Pleno del Ayuntamiento de Kortezubi, **ACUERDA:**

1.- Integrarse en la *Red Zurrumurrurik Ez* junto con Ayuntamientos como; Aduna, Alegia, Alkiza, Anoeta, Asteasu, Arrasate, Basauri, Bilbao, Donostia-San Sebastian, Eibar, Errenteria, Getxo, Hernani, Ibarra, Larraul, Ordizia, Pasaia, Portugalete, Tolosa, Zarautz, Villabona, Vitoria – Gasteiz así como las tres Diputaciones.

2.- Solicitar a la Mancomunidad de Servicios de Busturialdea la actualización, reedición e impulso de *la Guía de Recursos* dirigida a migrantes y personas refugiadas que llegan a nuestra Comarca.

3.- Ejercer el derecho histórico del empadronamiento siguiendo las recomendaciones del Ararteko y empadronando a quienes carezcan de un domicilio así como ayudar a buscar empadronamiento a quien lo necesite facilitando, en su caso, empadronamientos en pisos vacíos del ayuntamiento, en centros sociales o cualquier lugar que sea considerado oportuno por los Servicios Sociales de Base, en coordinación con las administraciones y entidades competentes en la materia.

4.- Solicitar a la Mancomunidad de Servicios Sociales de Busturialdea que analice la posibilidad de elaborar un “*Documento de Vecindad*” facilitando así la acogida a los inmigrantes desde el primer momento, para evitar el aislamiento y el riesgo de segregación y exclusión social. El *Documento de Vecindad* es un documento que pueden solicitar los vecinos y vecinas que se

[udala.kortezubi@bizkaia.org](mailto:udala.kortezubi@bizkaia.org)



## **KORTEZUBIKO UDALA BIZKAIA**

5.- Eskura ditugun baliabide guztiak erabiltzea, errefuxiatuei eta emigranteei "Euskarri afektiboa" emateko gai den sare bat eratzea: norbere telefonoak erraztea, udalerriko gizarte zentroak eta solas guneak erakustea eta, orohar, etorri berriak diren pertsonen eguneroko ekintzetan parte hartzea animatzea eta Gernika-Lumo "abegi onaren herria" bihurtu."

Azkenean, mozio biak bozkatu egiten dira: EH Bilduk aurkeztutako mozioaren alde 3 boto (EH Bildukoena) eta 4 abstentzio (EAJ-PNVkoena), eta, EAJ-PNVek aurkeztutako mozioaren alde 4 boto (EAJ-PNVkoena) eta 3 abstentzio (EH Bildukoena).

Eta ikusita zerrenda gaian kontu gehiagorik ez dagoela eta bi mila eta hemeretzigarrenge apirilaren bederatziko arratsaldeko zortzi eta laurdenetan gaudela, Alkate jaunak bilera amaitutzat eman zuen, zeinaren agiria Alkateak eta Idazkariak sinatuta bait dago eta Idazkariak fede emanda.

encuentran en situación administrativa irregular y, teniendo residencia continuada en nuestro municipio, tengan dificultades para acceder al empadronamiento.

5.- Impulsar y poner todos los recursos que estén a su alcance, una red de vecinas y vecinos que pueda dar "sostén afectivo" a las personas refugiadas y migrantes, con gestos naturales como facilitar números de teléfono personales, enseñar los centros sociales y de esparcimiento del pueblo así como animando a la participación en la vida social de las gentes recién llegadas en el camino de convertir Kortezubi en "*pueblo de acogida y hospitalidad*"."

Finalmente, se pasa a votar ambas mociones: la presenta por EH Bildu consigue 3 votos a favor (los de EH Bildu) y 4 abstenciones (las de EAJ-PNV), y la de EAJ-PNV, consigue 4 votos a favor (los de EAJ-PNV) y 3 abstenciones (las de EH Bildu).

Y no habiendo más asuntos que figurasen en el orden del día y siendo las veinte y cinco horas del día nueve de abril de dos mil diecinueve, el Sr. Alcalde dio por finalizada la sesión de la cual se extiende la presente acta, que firman el Alcalde y el secretario que da fe.

[udala.kortezubi@bizkaia.org](mailto:udala.kortezubi@bizkaia.org)